Iker-2 P. Lafitteren omenez

Euskararen ikerketaz liburu berezi bat eskaintzen du Euskaltzaindiak, **Iker–2**, Piarres Lafitte jaunaren omenez.

1982ko maiatzaren 27an, Leioan, Euskal Herriko Unibertsitateak Pierre Lafitte jauna "doctor honoris causa" izendatu zuen eta, hori dela ta, Euskaltzaindiak bere omenezko liburu bat argitaratzea erabaki zuen. Beraz, hara hor erabaki haren erantzuna. **Iker–2**-rekin urrats berri bat ematen da euskal linguistikaren ikerketa alorrean. Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiarekin ireki zuen bide beretik doa iker saileko bigarren liburu hau ere. Lehenengo hura 1980. urteko udaran Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako **campus**-ean, edonongo euskalari jakitunak bilduz ikerketarako ikuspegi berrien abiapundu izan zen eta orain datoz ondorenezko uztak.

Esan beharra dago Piarres Lafitte-ren omenezko liburu hori, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Diputazioaren diru laguntzari esker lortu duela. Bere aurkezpena, hil honen 23an izango da Uztaritzen.

Iker–2, bere edukiñez, lehenengo hura bezain aberatsa dator. Hura bezala, Eduardo Txillidaren azalez, 23 X 16,5 zentimetro neurriz, 923 orrialdek osatzen dute. Liburu mardula beraz, eta esan beharrik ere ez, euskararen ikerketari begira mardula bezain mamitsua dela.

Sarreran Lafitte jaunaren bio-bibliografiazko zerrendak dakarzki, 9. orrialdetik 33.era. Gero, 35tik 729ra berrogeta lau iker lan hizkuntza eta literaturari buruzkoak: morfologia, lexikografia, joskera, tipologia, toponimia, filologia gaiak hartzen dituena; bigarren atalean ordea, 731. orrialdetik 903.era bitartean, beste hamalau lan, geografia, etnologia, historia eta arteari buruz, zeren inoiz Lafitte berak ere erabili dituen gaiak bai dira horiek ere.

Gaien mamiaz, zer esan? Orotarik bada Jacques Allières-enetik hasi eta Martin Ugalde-nera arte. Behar bada, kolaboratzaile diren euskalari ospetsuak dira edukiñaren kalitatezko garantiarik onena, eta besteak beste, hor ditugu: Allières, Altura, Barandiaran, Bidart, Goienetxe, Haritschelhar, Irigoyen, Lekuona zaharra, Aita G. Lertxundi, Metpjin, Mitxelena, Mukarovsky, Orpustan, Peillen, Rebuschi, Satrustegui, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante, Yrizar, Zytsar hizkuntza eta literaturari buruzkoan, eta, Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde eta gainerakoak.

Orotara: 33 lan dira euskaraz idatziak, 14 gazteleraz, 10 frantsesez, 2 rusoz, 1 alemanez eta beste 1 inglesez. Sarrerako bio-bibliografiazkoak euskaraz egotetik aparte. Lan horietako askok beren laburpena daramate, beste hizkuntza batean. Eta, anekdota gisa esan dezadan, ingles idazten duen bakarra japondarra dela, eta partaide den ingles bakarrak euskaraz idazten duela. Era hortara, hizkuntzalarien artean maiz gerta ohi den bezala, edonork idazten du berea ez denean, besteengana hurbildu nahirik, bereziki linguistikaren disziplinan hain sartuak ez daudenengana hurbiltzeko, zeren beren artean ez baita hain zaila era batean edo bestea idatzirik egotea, zientziaren alorrean hizkuntzak ez direnez muga. Baina, plurilinguismo hortan agertzen zaigun gauzarik bitxiena, zera da, euskaldun batzuk beren lanak erdaraz argitara baditutze ere, herbesteko zenbaitek euskaraz egin dutela. Bestalde, esan beharra dago, lanik gehienak euskaraz daudela eta jakintza mailan, euskaraz agertzen diren lanak, ez direla besteak baino apalagoak edo ahulagoak.

Iker–2 hontan bada lan berezirik. Hemen, artikulu labur honetan, guzien xehetasunak ematerik ez badugu ere, batzukin huts egiteko arriskoa gora-behera, merezi du zenbait ohar egitea, zeren ez dira bat batean burututako lanak Allières-en aditz sistemaren formalisatzeaz egina. Hor erakusten bai digu hainbeste axola duen pundu jakingarri bat, euskalkietako aditzek elkarrenganako susstriak non dituzten, horrekin adieraziz euskara uste baino batuagoa dela bere hizkuntz izatearen funtsean. Eta, liburuko beste lan adierazgarri bat da bibliografiazkoa, eta ez naiz ari egile bakoitzak bere lanean agertzen duen bibliografiaz, baizik J.A. Aranak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan dugun L.L. Bonaparte printzearen lanez baizik: 69 liburu eta liburuxka Bonapartek joan zen mendearen erdialdera Londresen argitaratuak eta beste eskuizkribu pilla bat. Haritschelharrek ordea, XVI. mendean Inglaterran euskaraz publikatu zen poesia ez ezagun baten berri eskaintzen digu, aurrerantzean gure literaturaren ondasunean sar dezagun. Euskal poesiaren azentuz eta doinuz berebiziki lan sakon bat eskaintzen digu Aita G. Lertxundi Belokeko beneditarrak, ordena hortakoek ohi duten pazientzia santa burutua. Mitxelenak, bere aldetik, "Iruñea" zergaitik den forma jatorra, berak ohi duen oinarrizko agirietan eta ahozko erabilkeran oinarriturik. K. Rotaetxek gramatikaren erakaspena eta hizkuntzaren funtzio bereziaren erakaspena aztertzen ditu. Trask inglesak euskal izen sintagmaren egituraz, esan bezala, euskara hutsean idatzia. Eta, abar eta abar.

Orotarikoetan ordea, adibide batzuk jartzekotan, Duvert-en euskal artearekiko egituarazkoa da lan aipagarrienetako bat. Justo Garatek inoiz argitaratu ez diren G. Humboldt-ren gutunak eskaintzen ditu ikergai. Lizundiak gure geografian departamentu eta kantonamentuak elkar egokitzeaz. M. Oronoz Euskal eliza bati buruz lotzen da. Eta abar.

Bukaeran hamabi orrialdeko izendegia daroa, liburu edo bilduma honen barnean aipatzen diren izenena, bakoitzaren orrialdeak markatuz, eta ondorean aurkibide orokorra.

Agirian dago hor argitaratzen diren lanetarik asko urteetan ikerketak jarraituaz burutuak direla; horregatik, euskal linguistikaren alorrean, luzarorako oinarriak jarriko ditu P. Lafitteren omenez argitaratu den **Iker-2** liburuak. Baina, azkenez esan dezadan, luburu hau argitaratzeaz Euskatzaindiari zerbait zor badiogu ere, ez gutiago bere lanez hortarako meriturik aski lortu duen gizonari, bere omenez bildua denez. Beraz, zorionak Lafitte jauna.

Juan SAN MARTIN

*La Real Academia de la Lengua Vasca–Euskaltzaindia da un inmenso salto cualitativo y progresivo en las investigaciones lingüísticas en torno a la lengua vasca con la presentación de **Iker–2** en homenaje al reconocido académico e infatigable investigador Pierre Lafitte. La edición ha corrido a cargo de la propia Academia bajo los auspicios de la Diputación Foral de Guipúzcoa. El acto de presentación tendrá lugar el próximo día 23 en la localidad de Ustaritz.*

Los estudios que se recogen en dicho volumen, en cierto modo, son el fruto de aquellos memorables Encuentros Internacionales Vascólogos, celebrados en la Universidad del País Vasco, campus de Leioa, el verano de 1980. Ellos sirvieron para la convergencia de los estudiosos y al propio tiempo el punto de partida para una nueva era en las investigaciones lingüísticas sobre el euskara, como se entrever en los presentes trabajos.

*A **Iker–2** le sirve de introducción variopertorios bio-bibliográficos de la persona objeto del homenaje. En sus 943 páginas formato de 23 X 16,5 centímetros, con una portada de E. Chillida) presenta cuarenta cuatro estudios de todo tipo: morfología, lexicografía, sintaxis, toponimia, filología, más catorce temas de geografía, etnología, historia, literatura y arte; temas que en esta ocasión ha tratado el propio señor Lafitte.*

Desde el estudio de J. Allières de la primera parte, que viene a ser la más tensa, los interesados por la lengua vasca hallarán materia para elegir, sin olvidar un libro abarca, en su segunda parte, otros de la cultura vasca. Prestigiosas firmas de karólogos como: Allières, Altuna, Barandiaran, Bidart, Goyhenetche, Haritschelhar, Lekuona zaharra, Aita G. Lertxundi, Metpjin, Michelena, Mukarovsky, Orpustan, Peillen, Rebuschi, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante, Yrizar, Zytsar, Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde, etc. son el mejor aval en garantía de calidad del contenido.

Algunos de los mismos presentan estos narios estudios, fruto de largos años de vestigación, y que vienen a asentar bases muchos años. La confección de esta obra mucho se debe a Euskaltzaindia, no es menos la parte que corresponde a los méritos dos por la persona que recibirá el merecido menaje.

Joankizuna

Physikê Berrian ezagutzen den aldakuntza handiena, zeinen bidez munduaren aurpegia eta izpiritua aldatu dituzten, KHRONO (denpora) delakoaren bir-deffinitzean izan da. Eta bir-deffinitze hunen bidez kausalitate (aitia, tò hû hêneka) delakoaren ideia basitik aldatu dute gaur eguneko Physian. Kausalitatea ez da orain, Physikê klasikoan gerthatzen zen bezala, bi gerthakizunen arteko lothura ezin-bertzea, zeinaren bidez gauzak halabeharrez hola gerthatzen ziren, eta hola ere gerthatu behar zuketen, bertze posibilitate (dynatogo) baten gabe. Hunelakoa izan zen kausalitate mêkhanikista; gaurko kausalitatea' ordea' statistikoa da. Eta nola kausalitate prinzipioaren gainean Philosophi materialista oinharriturik bait zegoen, halatan ere Philosophi hunen balioa desageri da. Eta gaur eguneko Physian dugun theôrien basea' bertzelako prinzipoetatik dathorku.

Physikê klasikoan' denpora **minus-x** punktutik, **zero** punktu baten barna joaiten den, eta **plus-x** punktu batetara jarraitzen zen dimenzione simples bat zen. Hemen **minus x** punktuak joankizuna ziren, zero punktua orain-aldia, eta **plus-x** ethorkizuna zen. Physikê berrian khronoaren ideia bertzelakoa da. Haren representatzekotz erran genezake, ezen khronoa' orain aldia leiho bat bezalako lizatekela. Hemendik khrono kosmiko iragaiten denean gauzak (pagmak) objektivatzen dira. Eta mementu huntatik GERORantz joaiten direlarik, **joankizun** batetan erorten dira. Beraz Physikê Berrian ba legoke JOANKIZUN bat, zeintan gauzak objektivatzen bait dira, eta joankizun hau Physikê Berriaren ideien araura iturum lizateke, beraz nolabait **iturum** huntan gauzak erorten direla' **praeteritum** bilhakatzen dira, ta bilhakatzenago. Halakotz gauzek' objektivatu direnetik ba dute beren GEROA, bainan heien **geroa**' joankizuna da. Euskaraz' garaikara klasikoz bezala' ideia hau **infinitivum** delakoaz jakinarazten da. Bainan ethorkizuna orduan zer da? Eta nun dago ethorkizun den GEROA? Geroa (futurum, espa.: porvenir; alem.: zukunft) delako denporaren deffinizionean Physikê Berrian **possibile** edo **probabile (dynató** edo **eikotó**) diren gauzen izangunea da. Euskaraz hunelako egokera jakinarazteko, garaikara klasikoz bezala, ba dugu verbuzko tempora berheizi bat: **ethorten dateke, ikhusi duke, joaiten garateke**... etc.

Garaikaraz ideia hau optativu ta **an** partikularen bidez emaiten da, bainan hau baino gehiago **an** partikularen ordez dialekto akhaioan eta Homêrok, euskaraz bezala **–ke** partikula ezarten dute. Eta hunelako forma grammatikalen edukitzea oso importanta da, zeren heien bidez euskaraz eta garaikara klasikoz, Physikê Berriaren ideia importantena hulertzeko basi logiko ta linguistiko bat bait dugu. Justu ideia berri hunen hulertzea' latin berriez eta hizkuntza germanikoez oso zaila da. Beharrezko diren mentalezko strukturak ez daduzkatelakotz.

Beraz' euskaldun batek, edo garaikara klasikoz dakien persona batek, hizkuntza huntan mintzo delarik, ba daduka latin, latin berri batetaz edo ta hizkuntza germaniko batetaz mintzo den persona bati erkatzean' superioritate ezin-ukhatuzko bat. Eta hunelako struktura grammatikal baten edukitzea hoin importanta da, non orain ere persona batzuek nola soilik Physikê klasikoarenak diren eta hizkuntza latin-berrietan eta germanikoetan dagozen grammatikazko struktura pentsatzen bait dute, Physikê Berriaren ondoan eta orain guganatzen den Kybernêtikêaren Iraultzaren mundua ezin hulert dezaketen, eta guganatazen diren kosmo berriaren aurrean itsu diren.

Baldin eta Physikê Berriaren araura' **joankizuna** (versus GERO praeteritum baterat dioan denpora) ba da, eta denpora huntan objektivatu gauzen izatelekhua ba dago, eta **ethorkizuna** guganantza ethorten den possibile ta probabile diren gauzen izatelekhua ba da, orduan euskaraz objektivatu diren verbuzko formak (–ke) gabekoak liratezke, adibidez: gizona ethorri **da**, aitak etxea ikhusten **du**, eta ethorkizuna bethi (–ke) gabekoak liratezke, adibidez: gizona ethorri **da**, aitak etxea ikhusten **du**, eta ethorkizuna bethi (–ke) duten forma grammatikêzkoez formatzen lizateke, adibidez: gizona ethorri **dateke**, aitak etxea ikhusten **duke**. Ba legoke huntaz gainera euskaraz joankizunaren futurum bat: adibidez **ethorriko da**. Eta nola denpora hau objektivatu izaikarien argitzeko denpora bait lizateke halatan hemen halabeharrezko bait da de facto joankizun (praeteriturum) bat genedukake.

Beraz euskaraz GEROa (futurum) aiphatzen dugunean bethi galde egin behar genuke: **zein gero?** 1. Halabeharrez gauzetan eta gauzekin gerthatzen dena, gauzak objektivatu direlakotz? Eta hau da gizon gehienak ikhus dezaketena... ala 2. ethorkizuna? Hau da, guganat ethorten zaikuna, zeintan gauzak orain-arte ez diren, eta guztiak izan diratekeen, eta soilik ethorriaz geroz bilhakatzen diren... beraz ethorkizun bat, zeintan orain-arte ez diren gauzak, izaiten diratezken. Berhain nahiz eta ethorkizuna' sentitugabe guganatzen den, persona batzuek hunelako ethorkizunean behatzeko hirugarren begi bat da dadukakete, hor dagozken gauzen ikhustekotz zeren eta hunelako gizon batzu egon izan ez ba lira, nehoiz ere nehork zivilizaione eta kultura bat kreatu ukhan ez bait luke. Bainan hunelako hirugarren begia dadukaketen personak hoin bakhanak dira, non dudarik gabe 1 por 100.000 baino guttiago diren, hala-ere soilik hunelako personek egokera batetan ikhus dezaketenak' orain aldia hoinbertze aldatzen duke, non egiazko iraultza gerthatzen den. Eta mundu berria hulertuko ez dutenak' roboten intelligentzia nivelaren azpian geratuko dira, izaikari infra-robotikoak izzanen bait dira, eta roboten nivelaren gainean geratuko direnak' roboten jaubeak eta jaunak izanen dira ethorkizuneko munduan.

Federiko KRUTWIG SAGREDO

*Quizá el mayor cambio introducido en la imagen que representaba la Física Clásica haciendo surgir de esta forma la llamada Física Nueva, ha consistido en la nueva noción del tiempo, puesto que esta misma implica un cambio en la concepción de la causalidad. Esta que de ser una causalidad inexorable, ha pasado a ser estadística. El tiempo de la Física Clásica era unidimensional, se extendía desde un **minus x** (pasado), pasando por un punto **cero** (presente) y se encaminaba hacia un **plus x** (futuro). La Física Nueva define el tiempo de otra forma, diciendo que el **pasado** y **presente** es el tiempo de las cosas **objetivadas**, y el **futuro** de las **probables** y **posibles**. Como la noción del tiempo está implicada en las estructuras gramaticales de una lengua, las lenguas [illegible] germánicas ofrecen ciertas dificultades [illegible] comprender esta nueva idea. No en cambio griego clásico y el euskara. El tiempo [illegible] Física Nueva es como una corriente [illegible] trando por una ventana pasa objetivizando cosas, las cuales, a partir de este momento precipitan en el abismo hacia el pasado. pues, las cosas no avanzan hacia el futuro venir, sino que su "futuro" se halla [illegible] más subsumido por el pasado. El hombre [illegible] a través de esa ventana del tiempo al [illegible] que se aleja cada vez más, mientras el [illegible] llega por la espalda, sin que sepa nada [illegible] Tan sólo algunas pocas personas pueden [illegible] turar algo sobre ese **luego** "por venir", [illegible] de lo que contemplan en esa corriente [illegible] **luego** que "huye". En griego clásico [illegible] que en euskara clásico) hay tiempos [illegible] que corresponden exactamente a la [illegible] tiempo tal como la define la Física Nueva [illegible] **luego por venir** (futurum, venturum) es [illegible] **horkizuna** pero el **luego que se va** (futurum) es un **joankizuna**. Lo que nosotros contemplamos por estar objetivado, cada vez [illegible] aleja más y más de nosotros en el tiempo, precipita en el abismo del pasado objetivado mientras que del por-venir no sabemos todavía [illegible] mente nada. Las investigaciones [illegible] sobre la configuración del cerebro, han [illegible] trado lugares en donde se ubican todas las [illegible] ferentes facultades humanas. Pero nadie ha [illegible] contrado el lugar en que se ubica la visión [illegible] futuro, que es la que configura el presente [illegible] **"por irse"**. Y no obstante este [illegible] que existir ese lugar en algún cerebro de [illegible] nos muy escasos hombres, puesto que no [illegible] facultad no hubiera nunca existido [illegible] de civilización. Lo que pasa es que son [illegible] ...nos los hombres que junto a los dos [illegible] contemplan hacia el **joankizuna** poseen [illegible] cer ojo que contempla el **ethorkizuna**, [illegible] calcula que sean menos de 1 por 100.000 [illegible] mil), y quizá quienes auténticamente [illegible] nuevo tan sólo aparecen cada cuatro [illegible] nes en algún lugar insospechado. Y [illegible] aparecen algunos cuantos en bloque. [illegible] pasó en Grecia, nace toda una nueva [illegible] ción. Luego surgió alguno en Turingia [illegible] de Luis XIV, o en Weimar, o en Florencia [illegible] pero hizo falta esperar siglos para que la [illegible] raleza dote a un hombre de un ojo que [illegible] pla el ethorkizuna.*